

a g e n d a

n t z e r k i a

Fitxa Obra: Henry Bengoa *Inventarium*. Egilea: Bernardo Atxaga. Taldea: Hika. Aktoreak: Joseba Aierbe, Miren Gojenola, Mikel Laskurain. Ahotsa: Goiko. Musika: Joxan Goikoetxea eta Joseba Tapiá. Zuzendaria: Jorge Amich eta Macarena Pombo. Tokia: Getxoko Getxo antzokia. Eguna: Azaroaren 18an (euskaraz) eta azaroaren 19an (gaztelerez).

Gotenstrasse, 5-4.C, Hamburg

BAKAR-BAKARRIK noa Getxo, antzokira, zere? cuskarazko estreinaldira nirekin etortzeko zen neskak azken momentuan huts egiteko ohitura itsusia baitauka, baina hara ailegatzean sorpresa atsegin bat jasotzen dut: aretoa ia beteta dago! Ez da hain harrigarria gero, hobeto pentsatzen badut, Bernardo Atxagaren testu bat delako, *Henry Bengoa inventarium* hain zuzen ere, Hika taldeak taularatua. Gaueko bigarren ezustea esku-programa zabaltzean heltzen zait. Ikusiko dudana zer den jakiteko asmoz hartu egin dut sarreran, baina hara non bere barruan Hamburg hiriko plano bat baino ez dagoen, hainbat iragarki ezberdinez hornituta. *Gotenstrasse*ko garagardotegi batena baina. Hau bai sorpresa! Egiatzko bizitzan orientatzeko balio izango zuen planoak justu kontrako funtzioa betetzen du oraingo honetan. Lehen baino desorientatuago nago orain, baina batek daki... agian horrela izatea nahiago dut. Ez dakit zer gertatuko ote den eszenan, eta era honetan baldintza berdinetan nago protagonistekin. Azken finean Henry Bengoaren lagunek ere ez dakit zer aurkituko duten Hamburgera heltzean eta ezta Henryk berak ere ez ditu ezagutzen beraren noraezeko ibilbide exis-



Joseba Aierbe eta Mikel Laskurain antzezlanaren une batean.

tentzialaren motiboak. «Galde egidazue non, edo noiz, edo zelan, baina ez galdetu zergatik», esango die atzean utzitako laguneri behin eta berriro, urruntasunetik.

Atxagaren testuak bikain jolasten du hainbat elementurekin, bi bloke dialektikotan bildu ditzakegunak alegia. Lagunak alde batetik, hemen dagoena, bihotzean gordetzen dugun iragana. Henry bera bestetik, beharrezkoa den geroa, desegurua eta arriskutsua izan arren. Eta elementu solte hauek guztiak bikain erakusten dira ere taula gainean taldeak burututako ahalegnari esker. Arlo honetan aipatzekoa da testuari egitura dramatiko kementsua emateko lana, eta funtsezkotzat jotzen dut era berean eszenatokiaren kontzepzio interesgarria, Henryren gauza propioak ikuskatzea permititzen diguna eta bere etxebizitzaren *barnea* eta *kanpoa* garbi markatzen dituen; horrela beste elementu dialektiko bat izanik: Lan aktoralak dugu eszenaratzearen beste zutabe sendoa dudarik gabe. Joseba Aierberena bereziki, zeinek eta bere presentzia zehatzaz Henryren figura independente eta ezmoldakoaia ederki adierazten duen.

Amaitu baino lehen, muntaiaren, hautapen musikala bakarrik geratzen zait komentatzeko, ederra zinez eta adierazkorra oso, emanaldia zabaltzen eta ixten duen Joxan Goikoetxea eta Joseba Tapiaren *euskal rap*-a batez ere. Sentitzen dut benetan nire lagunagatik. Berak galdu egin du eta.

Agus Perez